



ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN DIREKTORIOA 2025

Ohar metodologikoa

Eragiketa estatistiko honetan ekitaldi bakoitzean euskal administrazioetan ari diren langileen datuak jasotzen dira.

2005era arte aurrekontu-plantillako datuak jasotzen ziren; 2005etik 2010era batez besteko langile efektiboen, alegia dedikazio osoko baliokidetzako lanpostuen datuak. 2011tik lau datatan enplegatuen datuak jasotzen dira: martxoaren 31n, ekainaren 30ean, irailaren 30ean, abenduaren 31n.

Datuak erakundearen, nortasun juridikoaren eta enplegu-harremanaren arabera banakatuta eskaintzen dira; 2010etik aurrera, sexuaren arabera; eta, 2017tik aurrera, lurralde historikoaren arabera, Euskal AEn enplegua duten estatu-erakundeak barne.

• Hona hemen estatistika-arloa osatzen duten **erakundeak**:

- ☐ Eusko Jaurlaritza,
- ☐ Foru-aldundiak,
- ☐ Udalak,
- ☐ Udalerrien mankomunitateak,
- ☐ Partzuergoak,
- ☐ Udal multzoak
- ☐ Tokiko entitate txikiagoak
- ☐ Beste erakunde publikoak:

Eusko Legebiltzarra

Kontu Publikoen Euskal Epaitegia

Datuak babesteko Euskal Agentzia

Euskal Herriko Kontseilu Ekonomiko eta Soziala

Lan Harremanen Kontseilua

Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorena

Arartekoa

Euskal Herriko Unibertsitatea (2010etik aurrerako datuak)

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

☐ Estatuko Administrazioa. 2025ean, Estatuko Administrazioaren mendeko erakunde publikoak sartu dira (2017tik aurrerako datuak ematen dira).

• **Nortasun juridikoaz**, hona hemen ditugunak:

☐ **Administrazio Orokorra**

☐ Erakunde Autonomiadun Administratiboak eta haien mendeko Erakunde Publiko eta Sozietate Publikoak, Irabazi asmorik gabeko Fundazio eta Institutuzioak, bai erkidegokoak, bai foru-aldundikoak, bai udaletakoak eta bai Estatukoak. Parte- hartze publikoa %50 izan edo gainetik den erakundeak daude barne, parte-hartzea administrazio batena zein zenbaitena delarik.

• **Enplegu-harremanean** ondoko kategoriak ditugu:

☐ Goi-karguak

☐ Funtzionarioak: Finkoak eta bitartekoak bereizten dira

☐ Lan-kontratudun Langileak: Finkoak eta Aldi baterakoak bereizten dira

☐ Behin-behineko Langileak

☐ Estatutupeko Langileak (Estatutupeko langileak funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen artean banatuta daude).

Egun-zatiko, denboraldi baterako, ixten edota irekitzen delako urtebete baino denbora gutxiagoan gauzatu diren, soldatapeko behin-behineko enplegatuek edo aldizkako enplegatu finkoek egindako jardueri dagokienez, langile okupatuek urtebetean jardunaldi osoz egingo luketen batez besteko baliokidea hartzen da kontuan.

Hona hemen **datu-iturriak**:

☐ Markoa osatzen duten erakundeentzako inkesta espezifikoa

☐ Euskal AEko administrazioarako ari den pertsonal-erregistroa

☐ Osakidetzako Giza Baliabideen Zuzendaritza

- ☐ Ikuskaritza zerbitzuan agertzen den pertsonala, mendeko erakunde publikoetakoa
- ☐ Foru Aldundietako Funtzio Publikoaren eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak.
- ☐ Memoriak eta kontsulta espezifikoak zenbait enpresa-erakunde publikori, fundaziori eta beste erakunde publikori

2020an 2011-2019 aldiko datu sorta berrikusi eta zuzendu zen. Eta 2025ean seriea eguneratu zen 2017tik, Estatuaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako erakunde publikoak barne.